ELA EUSKAL SINDIKATUA

# Autonoma Berriak

BOLETÍN INFORMATIVO PARA EL PERSONAL DEL GOBIERNO VASCO

## EDITORIALA

### ELAk ALEGAZIOAK AURKEZTEN DIZKIO EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGE-EGITASMOARI

**Enplegu Publikoaren Legearen proposamenak, estatuko legearen kopia izateaz gain,** negoziazio kolektiboaren eskubidea ukatzen du, eta enplegu publikoaren kudeaketarako arbitrarietate-mailak areagotzen ditu, **zerbitzuen pribatizazioarekin aurrera egiteko asmoz.** Gobernuak prestatu duen lege-egitasmo hori oso kezkagarria da guretzat; zeren, euskal administrazioetako enplegatuen eta herritar guztien zoritxarrerako, lan-erreforma Administrazioraino ekartzen digu, eta horren ondorioz **Administrazioaren zatikatzea eta pribatizatzea** erraztuko da, eta ongizate-estatuaren zaintzaile zuen eginkizuna ezabatuko da.

**ELAk lege-egitasmo hori erretiratzeko eskatu du,** eta zirriborro horren traba izan gabe negoziazioetan hasteko. Arauaren espiritua eta, horrekin batera, artikuluen zati handi bat aldatu ezean, enplegatu publikoon kaltetan izango da; zeren **lan-baldintzak banan-banan zehaztu** nahi dira, eta **negoziazio kolektiboa bazterrera utzi.** Langileak makurraraztea helburu duten neurriak hartzen dira, administrazioaren eta haren zuzendaritza-kargudunen irizpide eta nahien mende utziz.

Lege hau izapidetzeko prozedura luzea izango da. Hori delaeta, ELAtik behar diren ahalegin guztiak egingo ditugu dagoen bezala onetsi ez dezaten; horretarako, **beharrezkoak diren aldaketak proposatuko dizkiogu gobernuari** berari nahiz legebiltzarrari, eta beharrezkotzat jotzen ditugun **mobilizazioak** ere sustatuko ditugu.










# MOVIÉNDONOS LES MOVEMOS

- por una negociación real
- para recuperar derechos
- para ganar empleos
- para que nos respeten

# LAN-BALDINTZEN BILAKAERA ZUZENDU

## AURREKARIAK

**Eusko Jaurlaritzako langileoi soldatak eta eskubideak etengabe murriztu** dizkigute 2010. urteaz geroztik.

Direla soldata-jaitsierak, dela sinaturiko akordioa bete gabe uztea, dela aparteko ordainsaria kentzea, direla izozketak... **eroste-ahalmenaren %20tik gora galdu** dugu azken lau urteotan, eta gainera honakoak pairatu ditugu:

- **Gaixotasunagatiko bajaren osagarriak kendu dizkigute.**
- **Itzarriri egin beharreko ekarpenak eten dituzte.**
- **Erretiro aurreratuagatiko kalte-ordainak deuseztatu dituzte.**
- **45 lanordu gehiago urtean.**
- **Norberaren egunak gutxitu, eta erretiro-adina atzeratu dute.**

Neurri horien ondorioz **kontratazioak gutxitu dira,** eta joera hori larriagotu da Gobernuak ordezpenik ez egiteko hartu duen erabakiagatik.

## EGUNGO EGOERA

Euskal administrazioak **zergen bidez %6 gehiago biltzen ari dira**, 2013. urtean baino. Baina diru-bilketaren igoera kendu digutena itzultzera bideratu beharrean, zor publikoa ordaintzera bideratu nahi dutela iragarri dute. **ELAk zorra auditatzeko eskatzen du**, zati bat behintzat bidegabea baita eta ez bailitzateke itzuli beharko.

**Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz aldarrikatu du susperraldi ekonomikoa hasita dagoela**, eta datorren urtean finkatuko dela, jarraian bestelako datuak argitara emateko, bere gogoaren eta nahien arabera.

Hala ere, langabezia gorantz doa, eta familien kontsumoa oso maila apaletan dago oraindik.

**Nola etorriko da bere onera egoera, soldaten murrizketek gastatzeko ahalmena eragozten badute?**

## ELAREN PROPOSAMENAK

Ez dago aitzakiarik jada.

- Gobernuak badauka dirua, eta bere aurreikuspenen arabera datorren urtean are gehiago edukiko du.



- Kontsumoa hazi dadin, ezinbestekoa da enplegua eta soldatak ere haztea. Horrela berreskurapena sustatuko litzateke, Administrazioen zerga bidezko sarrerak handituko lirateke eta.

**Hala, langileen eskubidea eta gizartearen beharrizana ez ezik**, gobernuaren beraren eginbeharra ere bada, 2015. urterako pausoak ematea azken urteotan murrizturiko eroste-ahalmena eta eskubideak berreskuratze aldera. Horrek familien gastuan eragingo luke, eta hortaz herri-ogasunen diru-bilketan ere bai.

Gainera, akordio horretan enplegua finkatzea eta aldi baterako ordezpenak egitea hartu beharko lirateke barne, herritarrentzako zerbitzua hobetzearren eta enplegua sortzearren.

## AKORDIO BILA

**Gure iritziz guztiz komenigarria litzateke alde guztientzat akordioak lortzea**, eta horrela soldatak, lanaldia eta gainerako eskubideak loturik uztea berme guztiekin, kanpoko ezarpenik onartu barik.

**Ez dira ameskeriak. Bizkaiko Foru Aldundian akordioa sinatu berriak dira** soldatak igotzeko, kendutako soldataren eta aparteko pagaren zati bat berreskuratuz, Raxoiren aurreko lanaldi moldera itzuliz, enplegu publikoa finkatuz, aldi baterako lan uzteak ordezkatzeko konpromisoarekin, eta baimen nahiz litzentzietan onura nabarmenak jasoz.

**Gure aldetik lanean jarraituko dugu gobernuari eskakizun hori egiteko prest dauden sindikatuekin.** Gobernuak ez badu komenigarria ikusten akordioak bilatzea, edo Madrilgo ustezko ezarpenak aitzakia moduan erabiltzen baditu, ezezko hori aldarazteko mobilizazio-plan bat proposatuko dugu.

# REVERTIR LA CAÍDA DE LAS CONDICIONES LABORALES

## ANTECEDENTES

Desde 2010, a los trabajadores/as públicos del Gobierno Vasco **nos han recortado sueldo y derechos ininterrumpidamente.**

Entre bajadas de sueldo, incumplimiento del acuerdo firmado, retirada de la paga extra y congelaciones, acumulamos **más del 20% de pérdida de poder adquisitivo en estos cuatro años,** y además:

- **Eliminación de los complementos en situación de baja médica.**
- **Cese de las aportaciones a Itzarri.**
- **Desaparición de las indemnizaciones por jubilación anticipada.**
- **Incremento de 45 horas de trabajo al año.**
- **Disminución de días libres y el aumento de la edad de jubilación.**

Dichas medidas han acarreado un **descenso en las contrataciones**, agravada por la decisión del Gobierno de **no realizar sustituciones**.

## SITUACIÓN ACTUAL

Las Administraciones Vascas **están recaudando, vía impuestos, hasta un 6% más que en 2013**. Aumento que, en lugar de contribuir a la restitución de todo lo que nos han arrebatado, han anunciado que pretenden destinar al pago de la deuda pública. **ELA exige auditar la deuda** porque creemos que una parte, al menos, es ilegítima y no se debe devolver.

El Gobierno Vasco ha dicho y reiterado que la recuperación económica ya se ha iniciado y que el próximo año se consolidará.

Sin embargo, el desempleo sigue aumentando, y el consumo de las familias sigue en índices muy bajos.

## PROPUESTAS DE ELA

Ya no hay excusas.

- **El Gobierno dispone de dinero**, y según sus propias previsiones el próximo año habrá aún más.
- **Para que aumente el consumo es imprescindible que aumenten el empleo y los salarios.**

Así pues, además de un derecho de los trabajadores y trabajadoras y una necesidad de la sociedad, es una obligación del propio Gobierno establecer para el año 2015 unas condiciones que contemplen la **recuperación del poder adquisitivo y de los derechos que han sido recortados** los últimos años. Esto



redundaría en un aumento del gasto de las familias y por tanto de la recaudación de las Haciendas Públicas.

Además, en ese acuerdo también se debería recoger la **consolidación del empleo y la obligatoriedad de sustituir las ausencias temporales, para mejorar el servicio a la ciudadanía y crear empleo.**

## EN BUSCA DE ACUERDOS

Creemos que sería absolutamente conveniente para todas las partes llegar a acuerdos sobre salarios, jornada y resto de derechos, con todas las garantías para su aplicación, sin aceptar injerencias externas.

**No es ninguna quimera. En la Diputación Foral de Bizkaia se acaba de firmar un acuerdo** que supone incremento de salarios, con recuperación de parte de lo recortado y de la paga extra, volver a la jornda anterior al Decreto de Rajoy, consolidación del emplo público -incluso con compromiso de sustituir ausencias temporales- y un buen número de mejoras en licencias y permisos.



Por nuestra parte, **vamos a seguir trabajando con los sindicatos que estén dispuestos a trasladar esta reivindicación al Gobierno**. En caso de que el Gobierno no comparta con nosotros la conveniencia de llegar a acuerdos o busque excusas en supuestas imposiciones de Madrid, propondremos un plan de movilizaciones que desbloquee esa negativa.

# www.ela-sindikatua.eus




## ELA: INDARRA eta BABESA

Soilik afiliazioak berma dezake autonomia sindikala botere politikoaren aurrean (kolorea zein den ere).

Langile-erakundea gara, zu bezalako milaka langilek osatzen dutena: guztion eskubideak babesteko eta lan-baldintzak hobetzeko, gizarte zuzenagoa eraikitzeko eta baita gure herriaren nazio-eskubideen alde egiteko ere.

Patronala indarka dabil eta botere politikoak bitarteko guztiak jarri dizkio esku-eskura, lan harremanak gogoak ematen dion bezala maneia ditzan.

Langileok bakartuta, banaka, ezingo diogu aurre egin patronalaren erasoari. Indar kolektiboa eta antolatua beharko dugu, errespetatuko bagaituzte.

Hori da ELA sindikatua: langileon indar antolatua. Zure arazoak gureak ere badirelako, zure borroka gurea den bezalaxe.

Ezagutu gaitzazu. Zatoz ELAra!

**Sólo la afiliación garantiza la autonomía sindical frente al poder político (sea del color que sea)**

---

ELA EUSKAL SINDIKATUA

**Afiliazio orria**
Hoja de afiliación
www.ela-sindikatua.eus

1.abizena: / 1º apellido
2.abizena: / 2º apellido
Izena: / Nombre
Jaioteguna: / Fecha nacimiento
Jaiotze herrialdea: / Lugar de nacimiento
Helbidea: / Dirección
Herria: / Localidad
Herrialdea: / Provincia — P.K.: / CP
Telefonoa: / Teléfono — Mugikorra: / Móvil
E-posta: / E-mail

NAN/IFZ: / DNI/NIF
Emakumezkoa / Mujer ☐
Gizonezkoa / Hombre ☐
Lantokia: / Empresa
Enpresaren G.S.ko zenbakia: / Nº Seg. Social de la empresa
Helbidea: / Domicilio
Herria: / Localidad
Lanbidea: / Profesión
Kategoria: / Categoría
Lan-hitzarmena: / Convenio

Banku edo Aurrezki Kutxa: / Banco o Caja de Ahorros
IBAN zenbakia (Banku kontua): / Nº IBAN

Data / Fecha — Sinadura / Firma

Kuota mota: / Tipo de cuota — Arduraduna: / Responsable